# ISLAMOFOBIA ETA GENEROA

Emakumeak, feminismoak, erakundeak eta diskurtsoak sexismoaren eta arrazakeriaren aurrean

# AURKIBIDEA

04/ Sarrera eta egitasmoaren kontestualizazioa

06/ **I. kapitulua. Tailerrak emakume musulmanek islamofobiaren aurka egin borrokaz.** Euskadiko esperientzia. **Maya Amrane**

09/ **II. kapitulua. Islamofobia eta generoaz topaketa:** begirada anitzak ekintzailetzatik, erakundeetatik eta akademiatik. **Ángeles Ramirez, Anaitze Agirre Larreta**

14/ **III. kapitulua. Ondorioak eta gomendioak**

# SARRERA

## ISLAMOFOBIA ETA GENEROA: EMAKUMEAK, FEMINISMOAK, ERAKUNDEAK ETA DISKURTSOAK SEXISMOAREN ETA ARRAZAKERIAREN AURREAN

Islamofobiaren Aurkako Herritar Plataformak 2016ko txostenean salatu du ezen pertsona musulmanen (edo halakotzat identifikatuak direnen) aurkako gertaerak Espainiar Estatuan %106,12 gehitu direla, 573 izateraino, haietarik %14,14 emakumeen aurka.

Giza Eskubideen Europako Agentziak (FRA) jasota du 2017ko irailean aurkezturiko "Musulmanak EBn"[1] txostenean ezen lan bila dabiltzan pertsona musulmanen %31 disrkiminatua izan dela azken 5 urteotan, eta %42k kontrolak jasan dituela gutxiengo etniko bateko edo etorkin jatorrikoa izateagatik.

[1] http://fra.europa.eu/en/press-release/2017/muslims-eu-high-levels-trust-despite-pervasive-discrimination

Valentziako Islamiar Kulturetxeko lehendakari Amparo Sanchezek, 2016an Estatuan izandako emakumeen aurkako 81 eta haurren aurkako 23 eraso islamofoboren berri ematen zuen. Txostenek alerta jo dute: "Gorrotoa eta indarkeria areagotu egin dira genero islamofobian ere, emakume musulmanen aurkako eraso larriak barne (SOS Arrazakeria, 2017;190)".

Halako gertaerek, eguneroko diskriminazio maiz normalizatu eta ikusezinetik erasorik gordinenera artekoek, bultzatu dute SOS Arrazakeriaren Federazioa hainbat ekintza egitera erasoak jasaten dituen kolektiboari partehartze gune normalizatuak eskaintzeko, desberdintasunak ikusarazteko eta arrazakeria berdin apal zein bortitzari aurre egiteko estrategiak bilatzeko.

Bide horretan, SOS Arrazakeria Federazioak 2017an zehar *Emakumeak eta Islamofobia* egitasmoa garatu du. Gipuzkoako lurralde historikoan Gipuzkoako SOS Arrazakeriak landu du, eta Galiziako SOS Arrazakeriak Pontevedran eta A Coruñan. Egintzek bi ardatz desberdindu eta elkarri lotutakoak izan dituzte, biak ere argitalpen honetan jasoak. Lehen aldian *emakume musulman taldeekin tailerrak* antolatu dira, haien partehartzea eta ahalduntzea indartzeko diskriminazio ugari eta intersekzionalen aurrean. Esan ere gune horietara emakume ez musulmanak gonbidatuak izan zirela, partehartzea, elkarren ezagutza eta onarpena indartzeko. Argitalpen honek jasotzen du Euskadin egindako tailerretako esperientzia.

Bigarren aldian "*Islamofobiaz eta generoaz topaketak"* antolatu ziren Donostian; bertan eztabaidatu zen genero islamofobiaren aurka borroka egitean sortzen edo garatzen diren hainbat alderdiz. *Topaketak* eremu izan ziren emakume erasandakoentzat, politika publikoak ezartzen dituzten eragileentzat, arrazakeriaren aurkako borrokan interesatutako gizarte erakunde eta norbanakoentzat.

Argitalpenak hainbat gomendio zehatz jasotzen ditu, balizko estrategia gisa erabili daitezkeenak diskriminazio horiek borrokatzeko [2].

Eskertzak: Lan eta Gizarte Segurtasun Ministerioko Asilo, Migrazio eta Integrazio Fondoari, egitasmo osoaren finantzatzaile izateagatik; Donostiako Udalari eta EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko Departamentuari, "*Islamofobiaz eta generoaz Topaketak*" antolatzen eta finatzatzen emandako laguntzagatik.

Tailerrak antolatzen emandako laguntzagatik, eskerrak ematen dizkiegu Errenteria, Pasaia, Tolosaldea, Arrasate eta Eibarko Udalei eta migrazio eta aniztasun teknikariei; Euskadiko Emakume Musulmanen Elkarteari; Bidaya Emakume Elkarteari.

Eskertza ere jarraian aipatu pertsona eta erakundeei "Islamofobiaz eta generoaz Topaketak" antolatzen emandako laguntzagatik: Angeles Ramírez, Fatima Tahiri, Jordi Moreras, Fatima Taleb, Khadija Ryadi, Salma Amzian, Margaret Bullen, Antoinette Torres, Daniel Ahmed, Laura Navarro, Fatima Aatar, EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko Departamentuari, Donostiako Udalari eta ZAS! Zurrumurruen aurkako Euskal Sareari ■

Itzulpena: *Mikel Forcada*

---

[1] Bi lurraldeetan egindako tailerretako esperientzien eta Donostiako Topaketetako hizlarien txostenen berri osoa jasotzeko, jo honako helbidera: https://sosracismo.eu/publicacion-islamofobia-genero/

# EMAKUME MUSULMANAK BORROKAN ISLAMOFOBIAREN AURKA TAILERRAK:

## EUSKADIKO ESPERIENTZIA

**Maya Amrane.** Islama eta generoan aditua. Kulturen arteko bitartekaria

Ekimenak abiapuntu zuen emakume horien erantzun estrategiak garatzeko beharra arbuio edo diskriminazio egoerei aurre egin ahal izateko, bai bakarka bai taldean, eta horretarako:

1. Zehazki emakumeei zuzenduriko diskriminaziozko tratuen eragile eta eskubide eta askatasun urratzaile direlarik, halako gertaerei eta haien adierazpenei buruzko ezagutza hartzea.
2. Kontzientzia hartzea halako gertaerak ezin direla normaltzat edo onargarritzat jo.
3. Erantzunak eman ahal izateko argudioak eta trebeziak garatzea, elkarbizitzarako kaltegarriak izan daitezken arbuio dinamiketan erori gabe.
4. Beraiei buruz sorturiko eztabaida publikoan lehen pertsonan inplikatzea, eta haiei buruzko pertzepzio orokorrean estereotipo txarrek duten eragin kaltegarria arintzea.

## PARTEHARTZAILEEN **SOSLAIA**

Tailerretan 70 emakumek parte hartu zuten, gehienak musulmanak (56), baina baita musulman ez zirenak ere (14), tailerrak irekiak baitziren emakumeentzat oro.

Emakume musulman gehienak marokoar jatorrikoak ziren; Aljeria, Pakistan, Senegal, Turkia eta Azerbaijango emakumeak ere baziren. Hainbat emakume gaztek ere parte hartu zuten, familia etorkinetako alabak izaki eta Euskadin jaio eta/edo hazitakoak; baziren ere beste hainbat emakume familia katoliko tradizionaletatik islamera bihurtutakoak.

Migrazio esperientziadun emakume gehienak Euskadira iritsi ziren familia helburu bati lotuta (ezkontidearekin elkartzeko edo harekin batera migratuta, Euskal Herrian jaio edo/eta hazitako umeekin); gutxi batzuek migrazio prozesu autonomoa egin zuten.

Heziketa eta lanbide mailari dagokionez, salbuespenak salbuespen (bikote gazteen kasuak), familiarekin etorritako emakumeek heziketa ibilbide laburra zuten, hainbatek gazteleraren ezagutza mugatua (tailerretako hizkuntza nagusia) eta kasik erabat emanak familia arduretara (etxeko zaintzak eta lanak). Migrazio esperientzia autonomoko emakumeen artean baziren heziketa eta lan maila handiagokoak. Bestalde, Euskadin jaio edo/eta hezitako gazte gehienak unibertsitarioak ziren, hirueledunak gutxienez (arabiera/urdua, gaztelera, euskara), hainbat ere amazig, ingeles edo/eta frantses hiztunak. Batzuk maila handiko lanpostuetan jarduten, bestetzu halakoak lortzeko anbizioz. Islamera bihurtutako emakumeak, oro har, gazteen heziketa eta lan maila beretsukoak ziren.

Erabilitako **metodologiak** partehartzea sustatu nahi zuen, haien arteko eta bideratzailearekin lankidetza, halako moduan non beraiek elkarrekin eraiki zitzaketen erabili beharreko ezagutzak eta identifika zitzaketen jarrera eta estrategia egokiak eragile aktibo izateko islamofobiaren fenomenoaren aurrean. Halaber, ahalegina egin zen saioetan erabilitako hizkera denen ulermenekoa izan zedin, bertaratutakoei errazteko partehartzea baldintza beretan izatea.

Erabilitako hizkera emakume guztien gaztelera ezagutza maila desberdinekin egokitu zedin eta haien arrazoimen abstrakturako gaitasunarekin, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea hobestu zen (irudiak, argazkiak, bideoak…), eta oso ideia zehatzei loturiko hitzak eta esaldi esplikatzaileak, ahal zen neurrian kontzeptu abstraktuak baztertuz.

Jarduerak diseinatu eta garatzeko orduan, kontuan hartu zen taldeak oso heterogeneoak zirela aurretik halako ekimenetan izandako partehartze esperientziari zegokionez, bakoitzaren ibilbideak eta sozializazio eremuak gizarte nagusiaren baitan, generoari eta berdintasunari buruzko ikuskerak… eta behar izan zenean hainbat arlo metodologiko egokitu zen partehartzea orekatzeko, berau ez zedin mugatu landutako gaiekin eskarmentu eta erraztasun handien zuten emakumeengana ■

## ONDORIOAK

Bertaratutako emakume askok interesa eta esker ona agertu zuten beraiei zuzenean eragiten dien gertakari baten aurkako borrokan inplikatzera gonbidatu izanaz. Halaz ere, sumatzen zen beren bizimoduen konplexutasunak –migrazioaren ezaugarri dena, haietariko gehienek ez baitiote etorkin izateari uzten, horrek dakarren guztiarekin-behartzen zituela aldi berean fronte askori erantzutera. Egoera hori oztopo dute, zalantzarik gabe, inplikazio iraunkorrago baterako.

Bestalde, emakumeak jabetzen ziren aldaketak egin behar direla bikote eta familia roletan, partehartzeari buruz denbora eta autonomia gehiago izateko. Islam erlijioa bera ere aipatzen zuten argudio iturri gisara, etxeko arduretara mugatzen dituzten tradizio eta kultur herentziei aurka egiterakoan. Haien partehartzea sustatu nahi duen ekimen orotan, garrantzitsua izango da kontuan hartzea haien erlijio erreferentziak lagungarri gerta dakizkiekeela beren emanzipazio prozesuetan.

Hezkuntza eta lanbide mailen arteko aldeak ez ziren erabakigarriak izan genero desberdintasunaz zuten kontzientziari dagokionez, diskriminazio mota ugariei buruz (musulmana izateari dagokionaz landa). Oso hezkuntza ibilbide laburreko emakumeak gai izan ziren gogoetak eta kutsu eraldatzaileko proposamenak mahaigaineratzeko. Ordea, emakume haiek beraiek "uzkur" ziren nolabait eremu publikoan aritzeko; kontrara heziketa maila handikoa zirenak. Ohitura falta nahas "gizarte herabetasun" apur batekin (ohiko eremuetatik kanpo moldatzeko autokonfidantza urria) eta horra hor uzkurtasunaren zergatia. Maila honetan aldaketa sustatzeko dinamikak prozesu moduan planteatu beharko lirateke, erdi eperako proiekzioarekin.

Norbanakoen erantzun eta jarduerei buruz, argi dago immigraziotik etorritako emakume musulman askoren muga dela Euskadin erabiltzen diren hizkuntzen ezagutza urria. Gai honek arreta berezia eskatzen du: zergatiak aztertu behar dira eta irtenbide egokiak eskaini. Aldi berean da komunitate musulmanen ardura eta islamofobiaren aurrean emakume hauek babesten inplikaturik dauden gizarte erakunde eta instituzio publikoena.

Balizko estrategia, ekintza eta gomendioei dagozkien kapituluan planteaturiko proposamenetako askok epe erdi-luzeko lana eskatzen dute. Islamofobiaren aurkako lana epe luzeko dinamika da, beste ezein intolerantzia edo diskriminazioren aurkakoa beste. Emakumeek erakutsi zuten interesa eta ekiteko gogoa, baina nabarmena da aldizka antolatutako tailerrak ez direla nahikoa, eta prozesu gisako izango den lagun egite bat pentsatu behar dela, non emakumeek geroz eta autonomia gehiago hartuko baitute egindakoan, azkenean dinamikaren jabe egiteraino.

Azkenik, artikulu honen hasieran aipatu den kontsiderazio bati arreta jarri behar zaio, zerikusia duena emakume musulmanak "ren objektu" eta ez "subjektu" gisa ikusarazten dituen paradigmarekin, gehienetan "hartzaile" eta ez "protagonista" direlarik "beraientzat" baina ez "beraiekin" edo "beraiengandik" planteautako ekinaldietan. Ezinbestekoa da, beraz, ikuspuntu aldaketa■

# ISLAMOFOBIA ETA GENEROA TOPAKETAK.

## DONOSTIA, 2017KO URRIAK 6 ETA 7

## ISLAMOFOBIA ETA GENEROA: HAINBAT BEGIRADA AKTIBISMOTIK, ERAKUNDEETATIK ETA AKADEMIATIK

**Ángeles Ramírez.** UAMgo antropologoa
**Anaitze Agirre Larreta.** Gipuzkoako SOS Arrazakeria

Arrazakeriari buruz, eta bereziki arrazakeria anti-musulmanari buruz, SOS Arrazakeriarekin jardunaldi batzuk antolatzea pensatzen hasi ginenean, panel bat landu genuen sentsibilitate ezberdinak jasoko zituena, jakiteko subordinazioa nola bizi eta lantzen den arrazakeriaren barruan zaurgarrien jotako gizataldeetan. Horregatik aipatzen dira emakumeak eta LGTBIQ komunitateak. Halaber, interesgarria iruditu zitzaigun Maroko gisako herrialde arabiar bateko emakumeen emantzipazio borrokaren berri ematea. Akademikoak eta ekintzaileak gonbidatu genituen, gehienak ere biak batera baziren ere. Ondoko lerrook izandako eztabaiden edukia eman nahi dute.

Afrofeminas gunearen sortzaile Antoinette Torres Solerrek hasieran adierazi du beharrezkoa dela emakume beltzak positiboki ikusaraztea taktika politiko baten parte gisara. Egileak aipatzen ditu emakume beltzei buruz esklabotza garaiaz geroztik sorturiko estereotipoak, bell hooks gisako feminista beltzen hitzak ekarrita, eta 70. urteetako antropologo feministak egin bezala, irakurketa bat egitea proposatzen du hautsiko duena "emakume" subjektuaren unibertsaltasuna emakume zuriarekin identifikatzea.

Zeren, egile guztiek aipatu duten bezala, arrazakerien eraikuntzan oinarrizkoa da genero harremanen eraikuntza "bat". Bereziki islamofobiaren kasuan gertatzen da, eta hori da ondoko bi lanen gaia, Fatima Aatarrena eta Salma Amzianena. Aatarrek antropologiako gai klasiko bat berreskuratzen du: gizon musulmanen kriminalizazioa beraien kulturako emakumeen aurkako indarkeria ariketa haiei egotzi ondoren; besteren artean, Abu-Lughod (2002), Cardeira (2008), Guenif-Souilamas eta Mace (2012) edo Mijares (2014) egileek landutako gaia. Gai honek hausnar egitera garamatza nolakoa izan behar duen arrazakeriaren aurkako borrokak, eremu ez mistoak aukeratuz borrokarako, zeren eta Aatarrek deritzan eremu zuriek indarkeria ez besterik dute eskaini.

Bestalde, eta ildo berean, antropologiak oso maite dituen gogoetak jasoz, Salma Amzian andereak arreta deitzen du nola arrazakeriaz aritzerakoan generoa azpimarratzea izan daiteken ez bakarrik emakumeen eskubideen defentsarako oztopo, baizik eta interes arrazisten aldekoa ere, instrumentalizatzen baitu emakume musulmanen aurkako indarkeriaren ideia hain zuzen gizonen aurkako indarkeriari eusteko, eta ondorioz komunitateen aurkakoari, lehen aipatu egileen ildoan. Batzutan, komunitateko kideek beraiek ekin dezakete interes arrazista hauen alde, Mahmoodek (2009) *testimonial nativey* deitu zuena eta Amzianek jasoa, azpimarratuz irudi hauek behar direla testuinguru zabalago batean kokatu.

Azkenik, egileak beharrezko deritzo kontakizun estigmatizatzaile hauek hausteari, eta arreta deitzen du nola borrokarako tresnak ez diren baliagarriak leku eta testuinguru guztietan eta bestelako genealogia eta erresistentzia moduak berreskuratu behar diren.

Baina ez da generoa tresna bakarra komunitate musulmanei emakumeen aurkako indarkeria egozteko eta, ondorioz, islamofobia indartzeko; homofobia ere bada etiketa zilegia musulmanen aurkako estigma nabarmentzeko: komunitate musulmanak emakumeen aurkako indarkeria eremu izango lirateke, baina baita LGBTIQ pertsonen aurkakoak ere. Hau da Daniel Ahmed Fernandezen lana. Homonazionalismoak berriro ere zilegitasuna ematen dio musulmanen bazterketari. Haren aurrean, queer islamak mugimendu bat sortu du islamaren iturri klasikoak berreskuratu eta berrinterpretatzeko, fedea eta sexu eta genero aniztasunak bateragarriak direla dio, eta homonazionalismoaren politiken aurkako erresistentzia sare global bat osatzen du.

Artean, hormak eraikitzen eta arrazakeriari eduki juridikoa ematen darraite. Erradikalizazio kontzeptua, Estatuko indar errepresiboek eraikia eta azken finean nolabaiteko mantra zientifikoa bilakatua, agiri honetako kapitulu batean dager. Jordi Moreras-ek PRODERAI protokoloa aztertzen du (Kataluniako eskoletan islamdar erradikalizazioa detektatzeko protokoloa) arrazakeria instituzional zuzen eta oinarrizko baten modukotzat, oraingoan hezkuntzako eremura zuzendua, eta hain zuzen krisia gehien nozitu duten eskubideen esparruetakoa izanik protokolo bat ezarriko duena haur musulmanen gaineko susmoetan oinarrituta. Eskola bihurtzen dute musulmanen aurkako arrazakeriaren aliatu eta irakasleak gendarme, jada eguneroko arrazakeria nahikoa jasaten duen populazioarentzat, zeinek oraingoan bazterkeria gehitzen ikusiko baitu zaurgarrienak direnen aurka, alegia haur eskolaratuen aurka.

Fatima Tahiriren idazkiak modu esperantzagarrian erakusten digu eguneroko esperientzia bat, eguneroko borroka ikustezin bihurtutako eremuan: eskola. Kifkif programa aztertzen du, zein baita saio bat subjektibotasun negatiboak hausteko eta eskola diseinuen bitartez jatorri marokoarreko neska eta mutilei bestelako irudiak eskaintzeko. Haria da islama ez jartzea lehen mailan eta berreskuratzea bateko eta besteko gazteek partekatzen dutena. Gazte musulman gehienek besterik ez dute nahi baizik eta beste gazteak bezala bizitzea eta diren bezalakoak onartuak izatea.

Khadija Ryadiren mintzaldia gehitu dugu. Khadija giza eskubideen aldeko ekintzaile marokoarra da; Association Marocaine de Droits Humains (AMDH) elkarte jazartuaren kidea, berak ere egunero jasaten du poliziaren jazarpena. Asmo jakin batekin gonbidatua izan zen: ideia bat hausteko uste duena feminismoa ez dela gai emantzipazio egitasmo bat osatzeko emakume ez europarrentzat. Marokoko feminismoaren historian barrena, eta hainbatetan arantzatsu gertatzen diren klase jatorriaren auziari eta marokoar ekintzaile feministen laizismoaren auziari ihes egin gabe, Ryadik osatzen duen historia feminista modu ireki eta itxaropentsuan amaitzen da, marokoar feminismoan ekinean dabilen gazteria ekintzaile batekin, kritikoki heldu nahi diona mendebaldeko feminismoarekin dituen harremanei eta emantzipazio egitasmo bat landu nahi duena marokoar emakumeen errealitatean kokatua.

Azkenik, Laura Navarro eta Margarita Bullen-en artikuluek jardunaldietako eztabaidagai nagusia izan zena problematizaten dute: zuritasun etiketa borroka antiarrazistatik eta feminismotik eta epistemologiatik. Hain zuzen, Navarrok artikulua hasten du esanez bere gogoeten helburua dela aurrera egitea arlo epistemologikoan eta politikoan -feminismoaren eta antiarrazismoaren arteko harremanei buruz ari-. Aurre egiten diete feminismo dekolonialetik edo planteamentu dekolonialetatik oro har egindako hainbat kritikei, zeintzuek kolokan jartzen baitute emakume “ez arrazializatuek” arrazakeriaz

hitz egin ote dezaketen edo arrazakeriaren aurkako borrokan parte hartu.

Bullenentzat arrazializatu kategoria bera problematikoa da, testuinguruaren araberakoa baita: emakume asko zuritzat hartuak lirateke Donostian eta beltzatzat Oslon. Dio Bullenek: noraino erantzi nezake nere izatearen kolonialitatea? Aski da antropologoa edo feminista izatea? Ildo berean, Navarrok dio nola diskurtso "arrazializatu" jakin batetik ukatu egiten zaien ez arrazializatuei "deskolonizatzeko" aukera, alegia antiarrazista definitzea edo eta arrazakeria jasaten duten emakumeekin bat egitea. Eta hori horrela baldin bada, "zuritasunetik" ezin bada feminismoez hitz egin eta elkarrizketarik ez bada posible, dio Bullenek, "landareetara dedikatu beharko dut ezen ez pertsonetara". Antzeko ondorioak iristen ditu Navarrok, baina borroka politikoan: erresistentziak ez badaude inbrikatuta, ez badira indartsuak, ezin izango dugu zapalkuntza arrazistaren aurka.

Zaila da komunikatzea *Topaketetan* askoz gauza gehiago izan zela hemen jasotakoa baino. Tailerretako eztabaida aberatsak, pasiloetako berriketa sutsuak, sare sozialetan mugitu zena berriketa kartsuen kontura... Gero, partehartzaileak beren bizitzetara itzuli ziren, militantzietara, soldatapeko lanetara, gutxi-gehiago prekarioak, erabat sinetsita Donostian eztabaidatu zena 2017ko urrian pizgarri sendoa izango dela arrazakeriaren aurka feminismoetatik pentsatzen eta borrokatzen jarraitzeko. Egiten jarraituko dugulako, gauden lekutik eta edonon gaudelarik ■

## BIBLIOGRAFÍA

Abu-Lughod, Lila (2002) 2Do Muslim Women Really Need Saving?", *American Anthropologist*, 104 (3), 2002, pp.783-790.

Cardeira da Silva, Maria (2008) "As mulheres, os outros e as mulheres dos outros: feminismo, academia e Islao. *CadernosPagu* (30). Janeiro-junho de 2008: 137-159.

Guénif-Souilamas, Nacira y Macé, Éric (2012) *Les féministes et le garçon árabe.* La Tour d'Aigües: Éditions de l'Aube.

Mahmood, Saba (2009) "Feminism, Democracy and Empire: Islam and the War on Terror", en Herzog, Hanna eta Ann Braude, *Gendering Religion and Politics. Untangling Modernities,* New York: Palgrave eta Macmillan, pp: 193-215.

Mijares, Laura (2014) "El efecto Persépolis: procesos de domesticación y marginación de alumnas musulmanas en los centros educativos", Ramírez (ed.) (2014) *La alteridad imaginada: el pánico moral y la construcción de lo musulmán en España y Francia*. Barcelona: Bellaterra, 186-216 or.

# ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

inklusioa berdintasunean sustatzeko eta diskriminazio arrazistak eta matxistak borrokatzeko.

Ikerketa ugarik egiaztatzen dute arrazakeria antimusulmana edo islamofobia gora egiten ari dela. Hori dela eta, egitasmo honek helburu argiak zituen: musulmanen aurkako diskriminazioari eta arrazakeriari aurre egiteko estrategia zehatzak hauteman, ikusi eta antolatzea. Emakume musulmanak edo halakotzat hartutakoak izan ditugu erdigunean, beraiek jasan behar izaten dituzten diskriminazio espezifikoak direla eta –sexismoa eta arrazakeria gutxienik-.

Partehartze eta ahalduntze guneak ireki dira nagusiki emakume musulmanekin, baina beste emakumeentzako ere ezagutza eta onarpen foroak izan dira. Gune hauek prozesu baten lehen urratsa dira, eta berau sendotzeko instituzioen eta bultzada kolektiboen laguntza beharko du epe erdi-ertaineko ahaleginean, nola auzia zuzenean bizi duten emakumeen ahalduntze prozesuetan, hala gizartearen gehiengoak dituen aurreiritziak gainditzeko prozesuetan.

Prozesu honetan, desberdinkeria eta eraso anitz eta ugariei -izan egunerokoak eta sotilak edo esplizitu eta bortitzenak edo insituzioenak barne- gutxi gehiago aktiboki aurre egiten dieten emakumeek beraiek izan behar dute subjektuak.

Ez du zentzurik emakume musulmanaren soslaiari buruz mintzatzea eta bere problematikak begirada berdinzale batetik lantzea. Argi geratu da tresna zehatzak behar direla egunerokoari erantzuteko eta kontuan hartu behar dela emakume horien heterogeneotasuna: laguntza eta salaketa baliabideak, gizarte sareak, taldeko lana heziketan, etab…

Baina diskriminazioak gainditzeko zama guztia ere ezin da utzi zuzenean jasaten dituzten emakumeen beraien gainean. Gizartearen gehiengoak ere badu zer egina pertzepzio arrazista eta etnozentrikoak gainditzen eta borrokatzen, zeren auzi horiek gizartearen parte ere badiren pertsonen bizimodua baldintzatzen eta bortxatzen baitute. Deseraiki dezagun Europa zuri, zibilizatu eta kristau kulturazko fantasia hori.

# GOMENDIOAK

POLITIKA PUBLIKOAK INPLEMENTATZEN DITUZTEN ERAKUNDE **PUBLIKO ETA PRIBATUEI**

**Partehartzea erraztu.** Herritarren berdintasunezko partehartzeari guneak eta prozesuak ireki, nola espezifikoak hala zeharkakoak. Emakumeek argi asko identifikatzen dituzte diskriminazio sexistak eta arrazistak eta diskriminazioen aurkako borrokan subjektu izan nahi dute. Prozesu horiek kontuan hartu behar dituzte idiosinkrasia partikularrak eta baldintzatzaile legalak, sozialak, etab. nola den Atzerritarren Legea.

**Partehartze proposamenak eraikitzeko prozesuan sartzea.** "Beraientzako"-tik "beraiekin"-era igaro. Halako prozesuek eskatzen dute erabili ohi den ikuspegia aldatzea, maiz emakumeak prozesuaren hartzaile gisakotzat jotzen baititu eta ez protagonista.

**Kulturartekotasuna eta antiarrazakeria.** Partehartze soziala eta elkarren ezagutza sustatu, eta arrazakeria eta matxismoaren borroka bultzatu nahi dituzten ekimenek kotuan hartu eta ezagutu beharko lituzkete emakume horien ohiturak, ahalduntze tresna egokiak izan baitaitezke. Emakume horien jakinduria eta ezagutzak gutxietsi ditzaketen deriba etnozentrikoak saihestu behar dira.

**Hizkuntzak.** Etorrerako komunitateko hizkuntzen ezagutza urria muga handia da emakume askorentzat eta arreta berezia eta erantzun egokituak eskaini behar zaizkio.

**Musulman jendea gutakotzat onartzea.** Politika inklusiboek ahalegin berezia egin behar dute gu/haiek ideia ez errepikatzen, benetan gizarte elkartu bat sustatu nahi badute. Hau bereziki argia da bertan jaiotako musulmanekin, berdin atzerritar jatorrikoak edo bihurtuak izan.

**Gazteria.** Hezkuntza arloan ezagutza falta eta aurreiritziak borrokatuko dituzten esperientziak eta pedagogiak sustatu behar dira. Gizarteak eta hedabideek "muturreko islamizazioa" (Fatima Tahiri) sumatzen diote gazteria musulmanari, eta beste gazteengandik desberdintzen dituztelarik haien problematika errealak bazter utzi eta estigmatizazioa eta diskriminazioa areagotzen dituzte.

**Hezkuntza.** Hezkuntza den esparru bereziki sentikorrean eta helburu duen inklusioari begira, kolektibo musulmana estigmatizatuko duten neurriak baztertu behar dira, nola den PRODERAI *(Protocolo para la Deteccion y Prevencion de la Radicalizacion islamica)* Kataluniako Generalitateak hezkuntza zentroetan ezarria, krontraesanezko eta oztopo besterik ez baitira hezkuntza zentroen eginbehar nagusirako, nola diren komunikazioa, kultur trukeak, adimen eta gizarte prozesuen formakuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboak.

**Aurreiritzien eta zurrumurruen aurkako pedagogia eta sentsibilizazio antiarrazista.** Informazio, sentsibilizazio eta formakuntza programa espezifikoak inplementatu behar dira, genero eta islamofobia zurrumurruei aurre egiteko, elkarren ezagutza sustatzeko eta modu akritikoan azaleratzen den arrazakeria sorra borrokatzeko. Eta horrek denak ez du nahitaez eskatzen islama ezagutzea. Beraren ezagutza sakonak ez ditu saihesten komunitate nagusiaren pertzeptzio eta aurreiritziek beren baitan dituzten diskriminazioak, ez arazo sozial eta politikoak, ez arrazakeria eta sexismoa.

**Diskurtso instituzionalak.** Erakunde eta ordezkari publikoek bereziki, konpromezu argia hartzea gizarte eta instituzio arrazakeria ez sustatzeko. Islamofobiaren erabilera alderdikoi edo populistarik ez egitea.

# GOMENDIOAK

**MUGIMENTU FEMINISTAKO** TALDE ETA ELKARTEEI

**Bilgune eta aliantza eremuak.** Elkartzeko eta hurbiltzeko guneak bilatu, haietatik diskriminazio sexistei aurre egiteko eta borroka antiarrazistan eta feministan aliantzak sortzeko.

**Etnozentrismoa saihestu.** Begirada kritikoa gehitu etnozentrismoa baztertzeko eta aurreiritziak gainditzeko, musulmanen balioak atzerakoitzat, inboluzionistatzat berdintasunari dagokionean eta homofobotzat jotzen dituen begirada unibokoaz harago joateko, eta auzi hauei buruzko irakurketa konplexuagoak egin ahal izateko.

**Berdintasuna aniztasunetik.** Gutxiengoen idiosinkrasiei eta eskaera espezifikoei tokia emango zaizkien gune partehartzaileak sustatu eta erraztu, borroka komunetan parte hartu ahal izan dezaten.

## PERTZEPZIOETAN ETA JARRERETAN ERAGITEKO AHALMENA DUTEN DISKURTSOAK SORTZEKO GAI DIREN **HEDABIDE ETA ERAGILEEI**

**Aurreiritziak berraztertu.** Begirunezko begirada aurreiritzi gabea erabili gai sozialki sentsibleak lantzerakoan, ez ditzaten estereotipoak eta zurrumurruak areagotu. Azken urteotan sortzen ari diren hainbat hedabidek erakusten dute egin ahal daitekela kazetaritza antiarrazista eta antisexista.

**Normalizazioa.** Emakume musulman ikasien partehartzea eta bistaratzea sustatzea, zer eta beraiei eragiten dizkieten arazoez eta beren identitatea osatzen duten elementuez jardun daitezen.

**Sare sozialak.** Gorroto diskurtsoa ugaltzen eta hedatzen den eremu publikoa dira sare sozialak. Erakundeei eta hornitzaileei dagokie neurriak hartzea hura saihesteko, baina baita diskurtso horiek jaso eta errepikatzen dituzten erabiltzaileei.

**Begirada kritikoa.** Maila pertsonalean eta orokorrean, begirada kritikoa behar da diskurtso hegemonikoen aurrean. Maiz arrazakeria eta matxismoa era akritikoan onartzen eta errepikatzen dira.

BY NC ND

FInantzatzen du

FEDERACIÓN S.O.S. RACISMO

GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA GENERAL DE INMIGRACIÓN Y EMIGRACIÓN

DIRECCIÓN GENERAL DE MIGRACIONES

UNIÓN EUROPEA

FONDO DE ASILO, MIGRACIÓN E INTEGRACIÓN

*Por una Europa plural*